

BALIABIDE MOTAK

MindUp-ek, gainera, komunitate birtual bat sortuko du, non gazteek euren esperientziak, erronkak eta emozioak partekatu ahal izango dituzten.

Horrek elkar-laguntza eta ko-sorkuntza sustatuko ditu: erabiltzaileek beraiek proposatu ahal izango dituzte erronka berriak edo motibazio-esaldiak.

Horrela, erabiltzaileek proiektuaren parte aktibo direla sentituko dute, eta MindUp beraien artean eraikitzen ari direla.

Baliabide fisikoak

MindUp-ek ez du denda fisikorik edo bulego handirik behar, baina bere jarduera garatzeko ezinbestekoak izango dira honako baliabide fisikoak:

- Lanerako gunea edo coworking-espazioa (Lauaxeta Ikastola), taldearen arteko koordinazioa eta lankidetzaz errazteko.
- Ordenagailuak eta gailu mugikorak (4 behar dira), aplikazioaren diseinua, programazioa eta probak egiteko tresna nagusi gisa.
- Zerbitzari digitalak (hosting-zerbitzuak), aplikazioaren datuak eta erabiltzaileen informazioa modu seguruan gordetzeko eta kudeatzeko.
- Grabazio eta edizio ekipoak, audio eta bideo motibatzaileak sortzeko eta eduki digitalen kalitatea bermatzeko.

Baliabide fisiko horiek funtsezkoak dira aplikazioaren funtzionamendu teknikorako eta edukien ekoizpen eraginkorrerako.

Baliabide intelektualak

MindUp-en arrakastaren oinarria bere edukien kalitatean eta markaren identitatean datza. Horregatik, baliabide intelektual hauek izango dira bereziki garrantzitsuak:

- Marka eta logotipoa, osasun mental positiboarekin eta gazteen nortasunarekin lotura zuzena izango dutenak.
- Eduki motibatzaileak eta psikologiako teknikak, jatorrizkoak, eguneratuak eta profesionalek gainbegiratuak.
- Erabiltzaileen datuen analisia, aplikazioa etengabe pertsonalizatzeko eta esperientzia hobetzeko baliabide estrategikoa.

Baliabide intelektual horiek MindUp-en balio-proposamena sendotzen dute, eta merkatuan bereizteko abantaila lehiakorra eskaintzen diote.

Finantza-baliabideak

MindUp martxan jartzeko behar den hasierako dirua honela lortuko genuke:

- Taldearen aurrezkiak eta ekarpen propioak: Proiektuak lehen pausoak eman ditzan, partaideok jarriko genukeen hasierako inbertsioa.
- Diru-laguntzak eta bekak: Osasun mentala, gazteen ongizatea edo berrikuntza soziala bultzatzen dituzten erakundeek laguntzak bilatuko genituzke.
- Startupentzako programak eta inkubagailuak: Bai diru-laguntzak, bai oinarrizko azpiegitura eta aholkularitza eskaintzen dituzten programetan parte hartuko genuke, lehen urteetan proiektua sendotzeko.

Epe ertainera, MindUp-en diru-sarrerak honetatik etorriko lirateke:

- Premium bertsioen salmentatik: Aplikazioaren barruan eduki edo funtzio aurreratuak eskainiz.
- Edukien sortzaile eta profesionalekin egindako lankidetzetatik: Psikologo, hezitzaile edo sortzaileekin elkarlanean prestatutako eduki espezializatuek ere diru-sarrerak ekarriko lituzkete.